Aitor Aranak gazteei zuzendutako liburu berria aurkeztu du

–T. MADINABEITIA

Zuhaitza da Aitor Arana idazle legazpiarrak kaleratu duen azken liburua; Erein argitaletxea izan du bidelagun. Atzo aurkeztu zuen Donostian Antton Kazabonek *Mikel Larson* eleberria aurkeztu zuen ekitaldi berean, Joxerra Gartzia eta Inazio Mujika izan ziren aurkezleak.

Aranaren liburua 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako eleberria da, «adiskidetasuna, elkartasuna eta norberak bere buruarengan izan behar beharreko konfidantza» aldarrikatzen duena eta, aldi berean, gaztetxoei esperantoa zer den azaltzen diena.

Ia beti ohean gaixorik dagoen Unai da protagonista. Auzora bizitzera joan den Ludoviko agureak esperanto izeneko nazioarteko hizkuntza ezagutzeko aukera emango dio, eta esperantoaren bitartez, Tanzaniako Jua mutiko elbarria ezagutuko du. Biak, gaixotasun guztien sendabidea den zuhaitzaren bila abiatuko dira.

Gazteentzako literatura

Aitor Arana (Legazpi, 1963) 17 urte zituela hasi zen ipuinak idazten. Harrez gero, ehunka liburu argitaratu ditu, genero bat baino gehiaago jorratuz. Orain aurkeztu berri duen *Zuhaitza* bezala, argitaratu dituen liburuetako asko gazteei zuzendutakoak dira.

Euskal Herriko esperantista aktiboenetakoa da Arana gaur egun.

Aitor Arana 'Zuhaitza' liburuaren aurkezpenean. EREIN

Udalak 30.000 eurorekin indartuko ditu Bonodenda eta Bonoturismo kanpainak

Merkataritzari, ostalaritzari, jatetxeei eta interes turistikoko jarduerei zuzenduta daude Eusko Jaurlaritzaren bi kanpainak • Deskontu bonuak dira • Gaur amaitzen da izena emateko epea

–TERE MADINABEITIA

Legazpiko Udalak beste 30.000 euro bideratuko ditu herriko ekonomia suspertzera, aurreko hilabeteetan 3K eta On Egin kanpainekin tokiko kontsumoa sustatzeko 112.000 euro jarri eta gero. 3K kanpainan, 75.840 euro erabili ziren Legazpiko saltokietan eta zerbitzu enpresetan, eta kopuru horrek 670.066 euroko erosketak eragin zituen. Bestetik, 1.780euro erabili ziren ostalaritzari zuzendutako On Egin kanpainan, eta horrn ondorioz, 4.733 euroko erosketak egin zituzten.

Oraingoan, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak kaleratutako Bonodenda eta Bonoturismo kanpainetara atxiki da. Jaurlaritzak 5,7 milioi euroko ekarpena egin du bi kanpainetarako, eta udalei parte hartzeko eskaini dien aukera baliatu du Legazpikoak; 15.000 euro gehiago jarriko ditu Bonodenda garatzeko eta beste 15.000 euro Bonoturismorako.

Deskontu txartelak

Bonuak deskontu txartelak dira. Bonodenda kanpainan 10 euroko deskontua emango dute 30 euroko, eta merkataritzan erabiliko dira. Bonoturismo kanpainan ostalaritzan, jatetxeetan eta interes turistikoko jardueretako establezimendu eta enpresetan erabiliko dira bonuak, eta deskontuak 20 eurokoak izango dira hoteletan gastatutako 60 euroko, eta 5 eurokoak taberna eta jatetxeetan gastatutako 20 euroko.

Herriko ekonomia suspertzeko helburua du udalaren ekimenak. T.M.

Bi kanpaina horietan parte hartzeko izena eman behar dute saltokiek, tabernek, jatetxek eta ostatuek, eta gaur da horretarako azken eguna. Kanpaina honetan alarma egoeraren ondorioz bere jarduera eten egin zuten denda guztiek parte hartu dezakete, baita optikek eta produktu ortopedikoen, ekipo teknologikoen eta telekomunikazio eta telefoniako produktuen establezimenduek ere.

Erosleek, berriz, bihartik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak *www.euskadibonodenda.eus* eta *www.euskadibonodenda.eus* webguneetan.

Bonodenda eta Bonoturismo kanpainak abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean, eta betebetean hartuko dute Gabonetako erosketa denboraldia. Herriko ekonomiari bultzada emateko aukera paregabea izango dela eta, Legazpiko Udalak dei egin die bertako dendei, tabernei, jatetxeei eta ostatuei kanpaina horietan parte hartzeko.

Hilberriak

HITZA, Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

HITZAkide
TXIKIA (82mmX64mm): 100 € Hitzakideentzat 50 €
HANDIA (124mmX64mm): 150 € Hitzakideentzat 75 €
ESKERTZA (38mmX64mm): 50 € Hitzakideentzat 25 €
ESKERTZA (Eskela jarri baduzu): 10 € (Eskela jarri baduzu): 10 €
bez barne

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu. goierri@hitza.eus / Tel.: 943-16 00 56
GOIERRIKO HITZAn jarrita, Urola Kostako Hitzan, Tolosaldeko Atarian eta goierri.hitza.eus webgunean